



TXIRRINDULARITZA

Txirrindulari gaztetxoak gaur, Hernanin

Peña Otaño Saria jokatu da Urbieta kalean, txirrindulari infantil eta alebinekin, 16:00etan hasita. Ginkana ere egingo dute ondoren, «bizikletan trebatu eta teknika hartzeko».

TXIRRINDULARI koadrila ederra izango da gaur arratsaldean, Hernaniko kaleetan. Alebin eta infantil mailako 80 gaztetxok hartuko dute parte, Peña Otaño Sarian. Errepideko lasterketa jokatu dute aurrena, 16:00etan hasita; eta ginkana ondoren, guztiek, «oso garrantzitsua baita bizikleta gainean trebatu eta teknika hartzeko», azaldu dute JOCC taldeko Josean Aizpuruak eta Txemari Tranchek. /4

HERNANI

Lau talde, gaur Kontrakantxan

Datorren astean Kontrakantxan Gaztetxeen eta Gazte Asanbladen Topaketa egongo da eta motorrak berotzen joateko gaur kontzertuak antolatu dira, 22:30etatik aurrera. II/2

ASTIGARRAGA

‘Maya erlea’ zinean, gaur

Familia osoarentzat plana antolatu du euskera sailak gaurko. *Maya erlea*: ezti jokoak pelikula jarriko dute gaur, kultur etxean. Arratsaldeko 17:00etan izango da saioa, kultur etxean. /11

GOIZUETA

Karaokea kantari jarraitzeko, gaur

Goizuetan kantuak eta musikak ez du etenik. Honela, karaokea antolatu dute gaur, 18:00etan, ganbaran, haur eta gurasoentzat. Arratsaldea ezin hobeto pasatzeko aukera. II/14

EREÑOTZU

‘Artantxuriketan’, ostiralean

Ereñotzun ere egingo du geldialdia *Artantxuriketan* emanaldiak, ostiralean, 19:00etan, auzoetxean. Ansa ahizpa eta amaren ikuskizuna da. II/15

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-7
Oroimen historikoa, berdintasuna, kirolak, jasota bezela...

Astigarraga /10-12
Gaztelekua, eskia, EH Bildu...

Urumea /12-15
M8, Umore Ona, Arano...

Urtegi hutsa, laborategi

«Laborategi natural zoragarria» da Enobietako urtegia, hustutzen ari diren honetan. Hala dio Alberto Gosák, Aranzadiko herpetologoak. Artikutzako narrasti eta anfibioen bila aritu da, azkenaldian. /7-10

ASTE SANTUA

CAPADOCIA Apirilaren 13an Bilbotik hegaldi zuzena
8 eguneko bidaia 3* hoteletan, pentsio osoa + bixitak barne

1159 €

ITSAS BIDAIA Apirilaren 17an Bartzelonatik irteera
13 egun pentsio osoan: Marsella, Genova, Erroma, Tanger, Tenerife, Madeira

929 €

LA PROVENZA Apirilaren 18an Donostiatik irteera busez
4 gau 3* hotelean, pentsio erdia + bixitak barne

486 €

TUNEZ Apirilaren 18an Bilbotik hegaldi zuzena
4 gau 4* hotelean pentsio erdian

520 €

BERLIN Apirilaren 18an Bilbotik hegaldi zuzena
4 gau 4* hotelean gosaria barne

690 €

PRAGA Apirilaren 18an Bilbotik hegaldi zuzena
4 gau 3* hotelean gosaria barne

690 €

SALOU Apirilaren 18an Donostiatik autobusa
4 gau 3* hotelean pentsio osoan

282 €

LANDAK Apirilaren 21ean

7 gau alojamentua 2/4 ko bungalowa 383 € 4/6 ko bungalowa 432 €

ASTE SANTUA

CABO DE GATA Apirilaren 22an
6 gau 4* hotelean 2 heldu + ume bat, pentsio erdian

625 €

BENIDORM Apirilaren 21ean
7 gau 4* hotelean 2 heldu + 2 ume pentsio osoan

654 €

OPORTO Apirilaren 25ean Bilbotik hegaldi zuzena
3 gau, 3* hotelean gosaria barne

344 €

ARNEDILLO BAINUETXEA Apirilaren 25ean
3 gau pentsio osoa + tratamenduak barne

306 €

PROVENZA

ASTE SANTUAN BIDAIAK TALDEAN:
OMAN, CERDEÑA, CHIPRE...

www.bidaibila.eus
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI

BIDAIAK

Urbietza, 6

943 33 00 49

JARRAITU:

www.bidaibila.eus
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI
BIDAIAK
Urbieta, 6
943 33 00 49

JARRAITU:     

OROIMEN HISTORIKOA

Chueca irakaslearen hitzaldia asteazkenera aurreratu da

‘Alanbre-hesiak berriak zirenean. Erbesteratzeak eta Europako kontzentrazio eremuak gerra arteko Europan’, 19:30etan, Biterin.

GERRA Zibila eta oroimen historikoa (1936-1945) ekimenaren barruan bigarren hitzaldia asteazkenera aurreratu da. Josu Chueca irakaslearena ostegunean zen egitekoa, baina egun bat aurreratu da. Biterin, 19:30etan, eskainiko da, Alanbre-hesiak berriak zirenean. Erbesteratzeak eta Europako kontzentrazio eremuak gerra arteko Europan.

Gerraren hasierarekin batera, euskal herritar askok beren etxeak utzi eta erbestera joan behar izan zuten. II



Lehenengo hitzaldia eskaini zuen Lourdes Herrastik.

KONTRAKANTXA

Kontzertuak gaur, Gaztetxean

Datorren astean Hernaniko Gaztetxean Gipuzkoako Gaztetxe eta Gazte Asanbladen Topaketa antolatu da, baina motorrak berotzen joateko gaur bertan Garrote Fest ekitaldia antolatu da kontzertu desberdinekin. 22:30etan hasiko dira eta sarrera 5 eurokoa izango da. The Red Army, The Guilty Brigade, Balarrasa eta Dinamita taldeak ari tuko dira Gaztetxean. II

ZINEA

‘Lego 2’ eta ‘Bajo el mismo techo’

Bajo el mismo techo eta Lego 2 pelikula jarriko dira gaur Biterin. euskeraz eta gazteenetzat Lego 2 16:30etan hasiko da, bai gaur eta bai bihar. Bajo el mismo techo gaur, 19:30etan eta 22:30etan, ikusiko da, bihar 19:30etan eta astelehenean, 16:30etan. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† GABRIEL LUJAMBIO ECHAVE

Herenegun hil zen, 89 urte zituela

- Goian Bego -

Emaztea: Pakita Errazquin; seme-alabak: Gabriel eta Mari Carmen, Ana (†), Beatriz (†), Laxaro, Bea eta Fran (†), Ixiar eta Mikel, Beatriz, Juanjo; bilobak: Maialen, Egoitz eta Leire, Maria eta Urko, Iker eta Lorena, Xabier, Ander, Nahia; arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko martxoaren 16an

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.



GABRIEL LUJANBIO ETXABE

Besarkada bat.

RAMONI ETA IBARLUZEKO ILOBAK

Hernanin, 2019ko martxoaren 16an



EGK INDARKERIA MATXISTA

Berdintasun protokoloa martxan jarri da

Hernaniko eraso eta gero EGK-k dio «gure aurkako guztiak dira genero indarkeria».

PASA den larunbatean gizon bat atxilotu zuten Hernanin exhibizionismoagatik. Izandako indarkeria matxista horren harira Euskadiko Gazteriaren Kon-

tseiluak (EGK) Batzar Orokorrean onartu zen ‘Indarkeria Matxista eta LGTBI +fobikoaren aurkako Berdintasun Protokoloa’ argitaratu du. II

BEATRIZ FERNANDINO GOITIA

ZURE BILOBA EKAITZ ETA MAITE ZAITUGUNOK

GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko **SEIETAN**, Hernaniko **HILERRIKO SARRERAN** hileta zibila egingo da.

Hernanin, 2019ko martxoaren 16an



BEA FERNANDINO GOITIA

AGUR BEA
Asko eman diguzu
zure barrualdeko altxorretik
ZURE KUADRILA

GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko **SEIETAN**, Hernaniko **HILERRIKO SARRERAN** hileta zibila egingo da.

Hernanin, 2019ko martxoaren 16an



BEATRIZ FERNANDINO GOITIA



HERNANIKO UDALA

Hernanin, 2019ko martxoaren 16an



BEATRIZ FERNANDINO GOITIA

Negu bihurrian zeharkatu duzu azken atea
Utzi duzun hutsunea izango dugu zutabea
Gure kantu, barre eta malko artean
Gurekin zure kafea, zigarrotxoaren kea, betiko Bea.

AEK-ko TALDEKIDEAK

Hernanin, 2019ko martxoaren 16an



FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA

Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.
943 33 10 20 www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...

Zentrala · Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

BERDINTASUNA

Berdintasun IV Ikerketa Bekaren
Iana martxoaren 26an aurkeztuko da

Amaia Rodriguez Oñatibia ‘Biziraupenerako zaintza. Hernaniko inudeak 1900-1944’liburuaz arituko da Biteri kultur etxean.

BERDINTASUN IV ikerketaren bekaren auzpea egingo du Amaia Rodriguez Oñatibia bekaadunak martxoaren 26an, 18:30etan Biteri kultur etxean. Rodriguezek eskuratu du beka Biziraupenerako zaintza. Hernaniko inudeak 1900-1944 ikerketa lana burutzeko.

Ikerketa liburuaren aurkezpene egingo da martxoaren

26an. Amaia Rodriguezek azaldu duenez, «Hernaniko kasua aztertu dugu Hernaniko Udaleko Berdintasun Sailaren beka bati esker», eta otsailaren 24an Argia aldizkarian argitaratu ziren ikerlanaren zertzelada batzuk: «Inude hitza entzutean, XIX. mendean hirietan familia aberatsen haurrak zaintzen zituzten emakumeak etorri

ohi zaizkigu gogora. Urtero oroitzen ditugu gure kaleetan dotore jantzitako emakume haiek. Errealitatea baina, jai giroan irudikatzen duguna baino askoz konplexuagoa zen». Hori eta gehiago azalduko du Rodriguezek aurkezpenean, baita liburuan ere.

Bertan, irakurri ahal izango da errealitatea nolakoa zen. ||

MUSIKA TXISTULARIAK



Arkupeetan eskaini den lehenengo kontzertua izan da 2019an.

Leokadistik erritmoa jarri zien arkupeei

Leokadisti txistu taldeak urteko lehenengo kontzertua eskaini zuten arkupeetan. Inauteriak pasa berri zirela aprobetxatu, eta Gipuzkoako inauterietako doinuekin gozatu ahal izango zuten bertaratutakoek. Ohi bezala, belarriek ez zituzten faltan sumatu txistularien ohiko doinuak: *Bergara* minuetoa edo *Txoriak*, esaterako. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Txotxa eta mozorkeriaren kultura

Martxoaren 6an irakurri dugu Diario Vascoko Hernaniko kronikaren atalean Jaione Aristeguioren idatzia.

Kaxkohobetik eskerrak eman nahi dizkizugu astebururo Hernaniko Kaxkoan gertatzen den hondamenari egindako erreferentzia ausartu horrengatik; ordezkatzen duzun alderdi politiko horretako bozeramaile gisa sinatu zenezake.

Nabarmendu nahi dugu egun horretan bertan eta egunkari berean, 12garren orrialdean agertzen den artikulua, esanez, Getariako aurreko legegintzaldiko eta egungo alkateek gaizki pasako dutela. Fiskaltzak kartzela zigorrak eskatzen ditu haientzat eta tabernariaren batentzat, bizilagunen kexuei kasurik ez egiteagatik.

Zure galderari dagokionez, galdetzen duzunean nola kon-

pondu dezakegun kaleko desordena, txotx denboraldiko mozorkeriaren kultura, pentsatzen dut konturatuko zine-la: udal ordenantza aplikatuta, hiritarren arteko bizikidetzeta eta kale erabilera eta garbiketa arautzen duena. Hirugarren kapituluko 10garren artikuluan debekatzen du kalera botatzea botilak, botila txikiak, edalontziak eta freskagarrien ontziak; eta ez du zehazten bidrio, metal edo plastikozkoek ari den, DENAK debekatzen baititu.

Urtero bezala, udaletxeak udaltzainen zerbitzua indartzen du asteburuetako iluntze eta gauetan. Normalean baino udaltzain gehiago ikusten dugu, bereziki, Gudarien Plazan, eta herritarroi sortzen zaigun galdera da: zein dira herritar guztiok ordaintzen dugun zerbitzua indartze horren funtzio eta helburuak?

Bizilagunok eskatzen duguna da, bereziki, zaratak saihestea, baimendutako gehenezko neurria bikoiztu egiten baitute, eta kaleak zikintzea ere saihestea.

Bai, gure udaltzainek zerikusia dute garbiketari, eta ez erratzarekin ikusiko ditugulako, baizik eta udal ordenantzak aplikatzeak saihesten duelako gure gonbidatuek pisa egitea; botila, botila txiki, edalontzi eta freskagarrien ontziak kalera botatzea; eta gure udaltzainek, orokorrean, ez dituzte aplikatzen.

Beraz, gure galdera hau da: zertarako hainbeste indartze? Bakoitzak bere iritzia izango du, baina gero eta gehiago gara gure agintariak eta udaltzain batzuk ulertzen ez ditugun bizilagunak.

Ion Azpiazu Goñi,
Kaxkohobetu

LIBURU AURKEZPENEA



Ahoztar Zelaieta kazetariak liburu aurkeztu zuen.

Zelaieta, «ustelkeria» azaleratzen

La trama del 4%, las comisiones del caso De Miguel liburu aurkeztu zuen Hernanin Ahoztar Zelaieta ikerkuntza kazetaritzan adituak. EAJko hainbat karguduni eta haien gertuko egozten zaien «ustelkeria» trama aztertzen du bertan eta hainbat hermaniar hurbildu ziren Biterira. ||

MENDIRIZ MENDI

Etxalarretik Sunbillara, martxoaren 24an

Mendiriz Mendik Etxalarretik Sunbillara ibilbidea antolatu du, martxoaren 24an. Ibilbide honetan Bertizeko Parke Naturalaren mugetan ibiliko dira. Bertan dagoen Azkolegiko jauregia ezagutzeko aukera izango da. Izenemateko epea ostegunean, martxoaren 21ean amaitzen da. ||

ELUR TXORI

Garagardo dastaketan apuntatzeko aukera, bihar arte

Elur Txori elkarteak garagardo dastaketa antolatu du elkartearen, martxoaren 30ean, 20:00etan. Dastaketan izena emateko epea zabalik dago, baina bihar amaitzen da apuntatzeko aukera. Edonork eman dezake izena eta bost garagardo desberdin dastatuko dira. ||

basmodec

PINTURAK

Etxe barrurako
Kanporako
Egurra babesteko
Nahi duzun kolorea

ZURE PINTURA DENDA

PAPER PINTATUAK

LAMINATUAK

Obrarik gabe
Akarregi poligonoa
3.pabilioia 3-A Hernani

FATXADAK

943 52 16 50
basmodec.com

■ TXIRRINDULARITZA PEÑA OTAÑO SARIA

«Adin honetan, bizikletan trebatzea eta teknika hartzea da lehentasuna»

Peña Otaño Saria jokatu da gaur, arratsaldeko 16:00etan hasita, Urbietan kalean. Alebin eta infantilak ariko dira, eta ginkana ere egingo dute gero: «ibiltzen ikasteko oso baliagarria da, eta horregatik, aurten guztiek hartu beharko dute parte», azaldu dute JOCCeko Josean Aizpuruak eta Txemari Tranchek.

HASI berri dute denboraldi berria, JOCC taldeko txirrindulari alebin eta infantilek. Baina ez dute gehiago itxaron beharko, urteko lasterketa berezietako bat egiteko: gaur bertan jokatu da Peña Otaño Saria, Hernanin, taldeak berak antolatuta. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, Urbietan kalean.

Ordu erdi lehenago elkartuko dira taldekoak, Transpacarren, elkarrekin gerturatzeko irteerara. «Etxeko lasterketa oso berezia izaten da haienez, eta ilusioa egiten die. Taldeko ia denek hartuko dute parte, baina badira batzuk, oraingoz lasterketarik egin nahi ez dutenak. Guk animatzen ditugu, baina ez ditugu behartzen; hartuko dute konfiantza pixkanaka. Normalean, hasieran kosta izanda ere, gero oso gustura aritzen dira lasterketetan. Eta bakoitzak bere karrera egiten du: batzuk irabaztera joaten dira, besteak bukatzera, eta gehienek beraien artean izaten dituzte pikeak!», nabarmendu dute Josean Aizpuruak, taldeko zuzendariak, eta Txemari Tranchek, JOCCeko eskola kiroleko arduradunak.

80 txirrindulari inguru, lasterketetan eta ginkanan

Karrero tabernaren aurretik abiatuta, Ertzain etxearen errotondara joango dira txirrindulariak; handik Zinkoenara jaitsi, eta Txirrita kalean gora igoko dira, Atsegindegi aurretik bueltatzeko Urbietan kalera. Zirkuitu horri, hiru buelta emanango dizkiote alebinek, aurrena; eta bederatzi buelta infantilek, ondoren. Guztira, 80 txirrindulari inguruk hartuko dute parte, «guri dagokigun zonaldekoak, Donostialdea deitzen dutena. Zumaia Irurera doa, baina adibidez, Andoain eta Urnietakoak ez dira gurean sartzean, Goierrikoan baizik», azaldu du Tranchek.

Bi lasterketen ondoren, hirugarren zita izango dute txirrindulariek, ginkanarekin, Latsunbeberriko pistetan. «Lehen aukeran izaten zen, ginkanan parte hartu edo ez. Baina aur-



JOCC taldeko txirrindulari alebin eta infantilak. Aurreko lerroan, ezkerretik eskuinera: Gurutz Aizpuru, Unax Otegi, Irune Landazuri, Harri Garcia, Mattin Plazaola, Jakes Iturralde, Aimar Gonzalez eta Danel Txapartegi. Erdiko lerroan: Unai Hernandez, Xuban Rincon, Ekhi Rabanedo, Aimar Zabala, Intza Nabarro, Aimar Capdequi, Unax Goikoetxea, Noa Rodriguez, Lander Ibarrola eta Iñigo Mendoza. Eta atzeko lerroan, azkenik, entrenatzaileak: Garikoitz Arizmendi, Iker Iriando, Mikel Monge, Aner Zilbeti, Daniel Salcines eta Ekhi Muñoz. Beñat Auzmendi alebina falta da argazkian.

«Bakoitzak bere lasterketa egiten du: batzuk irabaztera joaten dira, besteak bukatzera, eta gehienek beraien artean dauzkate pikeak!»

ten, guztiek egin beharko dute, eta arrazoia oso sinplea da: ginkana oso garrantzitsua da bizikleta gainean trebatzeko eta teknika hartzeko, eta hori da lehentasuna, adin honetan. Ez badute umetan ikasten, gero zailagoa da», azaldu dute.

Zentzu horretan, diote «oso konpletoa» dela ginkana: zigzag egiteko konoak, kolunpioa, oreka mantentzeko tokiak, botila lurretik hartu eta uztea...

«Urtean bost edo sei lasterketa egiten ziren Hernanin, garai batean»

Gaztetxoek ikasteko eta ondo pasatzeko bai, baina «afizioa sortzeko» ere ezinbestekoa da herrian lasterketa bat antolatzeta. «Gogoan dut, txikia nintzenezan Tilosetan ginela, nola entzuten genuen musika megafonotik, eta gerturatzeko ginen

lasterketa ikustera», dio Tranchek. «Garai batean, bost edo sei lasterketa egiten ziren urtean, Hernanin; juvenil mailakoak asko», nabarmendu du Aizpuruak. Baina gero, bolada batean herriko kanpora atera zituzten lasterketak, industriaguneetara eta: «horrela zaila da afizioa sortzea, jendea ez delako kanpora joaten ikustera. Gu beti izan gara herrian egitearen aldekoak. Beste giro bat dago, eta haurrentzat politagoa da».

Peña Otaño Saria bera, Ibarluze poligonoan egin zuten 10 bat urtez, eta bost urte dira herrigunean egiten dela.

Astigarraga eta Hernaniko txirrindulariak bat, taldean
Taldeari dagokionez, «urte apalagoak» izan dituela nabarmendu dute, eta «talde majoa» osatu dutela alebin mailan, 16

txirrindulariarekin: «kontua da, Astigarragakoek ez dutela talderik atera aurten, eta gurekin bat egiteko esan ziguten. Beraz, erdia dira astigarrak». Infantilak, berriz, bi bakarrik daude: «badira beste batzuk, baina Andoainen edo beste talderen batean dabilta, gutxi direlako hemen», azaldu dute.

18 txirrindularietatik, hiru bakarrik dira neskak: «gero eta gehiago ibiltzen dira, helduen artean bereziki, baina hala ere, gutxi dira. Eta oso kirol egokia da edozeinentzat. Orain, talde bat dago Tolosan, kadete mailatik aurrerakoentzat, eta hori oso garrantzitsua da, segida izateko. Ea bailara bakoitzean lortzen dugun horrelako talde bat», azaldu dute.

Errepideko arriskuaren gaia dago, baita ere: «guraoek komentatzen digute, beldurra ematen diela. Normalean, etorritzen diren gaztetxoak izaten dira, bere grasoak ere bizikletan ibiltzen direnak. Hala ere, nahiko momentu onean dago txirrindularitza, Gipuzkoa mailan. Jende asko ibiltzen gara,

bereziki helduetan; baina baita umeetan ere», dio Tranchek.

25-30 boluntario gaur, lasterketa kontrolatzen

Sei heldu aritzen dira taldeko lanetan, eta sei-zazpi gazteko talde bat daukate, laguntzen: «mantendu beharreko zerbait da hori», diote Aizpuruak eta Tranchek. Astigarragako Kia Capdequi enpresaren laguntza ere izan du aurten, arropa berria erosteko.

Baina gaurkoan, horiek guztiak bakarrik ez, 25 edo 30 boluntario ariko dira lanean, lasterketa kontrolatzen. Probek iraun bitartean, gainera, trafikoko mozketak izango dira inguru horietan, eta Urbietako autobus geltokia, Aristizabal kalean egongo da, anbulatorioaren sarreraren aurrean.

Zikloturistak, Biriatura bihar
Taldearen beste adarra dira zikloturistak, eta denboraldiko hirugarren irteera egingo dute bihar, Biriatura. 09:00etan abiatuko dira Zinkoenetik, 56 kilometroko ibilbidea osatzeko. ■

■ ESKU PELOTA

Beste hitzordu bat trinketearekin, gaur

09:00etan hasita, Trinkete Txapelketaren bigarren jardunaldia jokatuko dute.

BESTE txapelketa bati ekin zioten aurreko astean CD Hernaniko emakume palistek. Paleta argentinarra modalitatean, Gipuzkoako Trinkete Txapelketa hasi zuten, eta gaur izango dute bigarren jardunaldia. Goizeko 09:00etan hasita izango dira partiduak; denera, lau jokatuko dituzte hernaniarrak.

Igo eta 2. mailan, herritarrek Lehenengo eta bigarren mailan dabiltzan palistek izango dituzte partiduak. Aurrenekoa Iruran izango da; Maider Huizi eta Amaia Araiztegik jokatu

ko Su-Berri 1 taldearen kontra, goizeko 09:00etan. Eta 10:00etan hasita izango dira gainontzekoak, Donostia-ko Gaska trinketean: bigarren mailan, Mirari Etxegia eta Ainhoa Urien (Hernani 1), Eli Gutierrez eta Eider Otaegiren (Hernani 2) kontra arituko dira; Ekhiñe Balerdi eta Garazi Urdangarin, Ramuntxo izango dute aurrez aurre; eta lehenengo mailan, Amaia Irazustabarrenak eta Ariane Arrietak Su-Berri 2ren kontra borrokatuko dute. ■

■ OKERRAK ZUZEN

Telefono zenbakian, akatsa Oriamendi eta Kronikaren arteko hitzarmenari esker, erremontez gozatzeko sarrerak zozketatuko ditu Kronikak. Horren berri eman zuen asteazkeneko aleak, baina izena emateko telefono zenbakia oker zegoen. 943 33 08 99 telefonoa da Kronikaren bulegokoa, eta apuntatu ahal izango da, zozketan parte hartu ahal izateko. ■

■ GIMNASIA ERRITMIKOA



Itsas lur txapelketan parte-hartu zuten hernaniarrak beren dominekin, Santurtzin.

Bigarren eta hirugarren postua, jubenil A mailan Udaberriko txapelketetan murgilduta dabilta Hernaniko Gimnasia Erritmiko elkarte

ko kideak. Ibilbide horretan, Itsas lur txapelketeta izan zuten aurreko asteburuan jubenil eta senior mailako neskek Santurtzin. Bigarren eta hirugarren postua lortu zuten Jubenil A mailako bi taldek, Hernani 1 eta Hernani 2k, hurrenez hurren. Bakarka, zortzigarren izan zen Ana Lujanbio jubenila, eta laugarren Patricia Perez, seniorra. ■

■ ASTEBURUKO PARTIDUAK

ERRUGESA				PALA			
Infantilak (Sub14)	Lons-Hernani CRE	Lonsen	Gaur 10:00	Nagusiak 1go maila	Su-Berri 1/Maider Huiz-Amaia Araizteg	Iruran	Gaur 09:00
FUTBOLA				Nagusiak 1go maila	u-Berri 2/Amaia Irazustabarrena-Ariane Arriet	Gaskan	Gaur 10:00 (3)
Emak. Euskal Liga	Hernani-Zarauz	Zubipen	Gaur 18:30	Nagusiak 2. maila	Etxegia-Urien/Gutierrez-Otaegi	Gaskan	Gaur 10:00 (2)
Mut. Ohekoak Erreg.	Hernani-Berri Gaste	Zubipen	Gaur 16:30	Nagusiak 2. maila	Balerdi-Urdangarin/Ramuntxo	Gaskan	Gaur 10:00 (1)
Nak. Erreg. Preferentes	Aloña Mendi-Hernani	Azkoagainen	Gaur 16:30	ESKU PELOTA - Txapelketa ofizialak			
Mut. Erreg. Preferentes	Hernani-Roteta	Zubipen	Bihar 18:00	Kadetak	Urtzi-Alberiz II/Lapke	Hernanin	Gaur 16:30
Mut. Jub. Nazionala	Hernani-Aleves	Zubipen	Bihar 12:00	Infantlak	Txinburreta-Eloazu/Aloña Mendi	Hernanin	Gaur 16:00
Mut. Jub. Ohor. maila	Hernani-Hondarbia	Zubipen	Bihar 16:00	Alebinak	Intza/Pascual-Urriola	Hernanin	Gaur 16:00
Mut. Jub. 1go maila	Lagun Onak-Hernani	Garrendipen	Gaur 15:30	ESKU PELOTA - Txapelketa pribatuak			
Nak. Kad. Ohor. maila	Ebar-Hernani	Unben	Gaur 14:30		Jon Jara-Huiz/Tolosa	Eliandon	Bihar 12:30
Mut. Kad. Ohor. maila	Vasconia-Hernani	Puon	Gaur 11:00	ERREMONTA			
Mut. Kad. 1go maila	Hernani-Urrieta	Zubipen	Gaur 12:00	1go partidua	Segurua-Aizpuru III/Azpuri-Larañaga	Galametan	Gaur 16:00
Nak. Inf. Ohor. maila	Hernani-Tolosa	Zubipen	Gaur 09:00	Sagardoaren Txap.	Gokoetxea V-Barrenetxea IV/Etxam-Ion	Galametan	Gaur 16:00
Mut. Inf. 1go maila	Hernani-Urrieta	Zubipen	Bihar 10:00	3. partidua	Urtzi-Etxebarria III/Zeberio II-Endika	Galametan	Gaur 16:00
Mut. Inf. 1go maila	Amaia Berri-Hernani	Maritulen	Bihar 12:30	4. partidua	Juanenea-Labaka/Ania II-Amuarte	Galametan	Gaur 16:00
Mut. Infantil Txikia	Hernani-Euskalduna	Zubipen	Gaur 10:30	ESKUBALOIA			
Alebinak	Hernani-Kozkas	Ondartzan	Bihar 09:45	Mut. Kadetak	Caribe Berri-Hernani	Legazpien	Gaur 17:30
Alebin 2. maila	Hernani-Internacional	Matxoxategin	Bihar 16:30	Nak. Infantilak	Hernani-Pulpo	Kirodegien	Gaur 10:00
SASKIBALOIA				Mut. Infantilak	Usturbi-Hernani	Usturbi	Gaur 11:30
Mut. Gipuz. 1go maila	Hernani-Atletico S.S.	Kirodegien	Gaur 16:45	Mut. Infantilak	Hernani-Pulpo	Kirodegien	Gaur 11:45

ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE
GRADUAK
2019

Learning from reality

INGENIARITZAK

ARRASATE

MARTXOAK 27 ASTEAZKENA 17:30

MAIATZAK 23 OSTEGUNA 17:30

EKAINAK 1 LARUNBATA 10:30*

GOIERRI

MARTXOAK 28 OSTEGUNA 17:30

EKAINAK 1 LARUNBATA 10:30*

ORONA IDEO

MARTXOAK 30 LARUNBATA 10:30

MAIATZAK 18 LARUNBATA 10:30

EKAINAK 1 LARUNBATA 10:30*

* Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei zuzendutako ate irekia.

GASTRONOMIA ZIENTZAK

Basque Culinary Center

DONOSTIA

MARTXOAK 23 LARUNBATA 10:30

MAIATZAK 11 LARUNBATA 10:30

HEZKUNTZA

ESKORIATZA

MAIATZAK 11 LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABALETA

MAIATZAK 11 LARUNBATA 11:00

EKINTZAILETZA, ENPRESA KUDEAKETA

OÑATI

MARTXOAK 23 LARUNBATA 11:00

MAIATZAK 9 OSTEGUNA 18:00

BIDASOA

MARTXOAK 28 OSTEGUNA 18:00

MAIATZAK 16 OSTEGUNA 18:00

BILBO

MAIATZAK 2 OSTEGUNA 18:00

Etorriko zarela jakinarazi!
902 110 436 — www.mondragon.edu/prest

■ ARRAUNA

«Erritmoa hartzeko egokiak izaten dira jaitsierak, eta Oriokoak gazteenei aukera emateko balio izan du»

Xabier Zabala entrenatzaileak gustora amaitu zuen lehenengo estropadan 'Maialen' traineruak emandako mailarekin: «16-17 urteko zazpi arraunlari berri aritu ziren eta helburuak bete genituen».

MAIALEN traineruak pasa den larunbatean hasi zuen denboraldia, hobe esanda, aurre-denboraldiko lehenengo traineru jaitsiera jokatu zuen, eta bertako trainerua uretan ikustea ez da gutxi, aurretik izan dituen aldaketak kontuan izanda. Orioko 25garren traineru jaitsieran aritu zen Hernaniko trainerua, eta 14garren bukatu zuen, Orio garailearengandik minutu 1 eta 34 segundora.

Kanpoko begirada batekin agian emaitza motel bezala ikusi daiteke, baina barrurako begirada bat eginez gero baikor izateko arrazoiak badaude. Hasteko, aurreko urtean Zumaiarrekin egindako akordioari esker, posible izan zen trainerua osatzea. Pasa den larunbatean trainerua, gehienbat, Hernaniko Arraun Elkarteko neskez osatua zegoen. Bada aldea eta positiboa, gainera.

Zazpi arraunlarirentzako lehenengo traineru estropada

Xabier Zabala 'Bixkar' entrenatzailea tolete artean dabil aste osoa, lan eta lan, taldea eta on-tziak prestatzen. Orion gauza berriak probatzen aritu zen. «Ongi irten zen eta helburuak bete genituen. Elkarteko gazte-txoekin aritu ginen eta gurekin dabiltzan Trintxerpeko hiru jubenilekin. Bertako batelean ibiltzen dira. 16-17 urteko zazpi neska uretaratu genituen. Horrela erabaki genuen aurretik, Orioko jaitsiera gazteekin egitea».

Denborari begiratzen bazaito emaitza kaxkarragoa lortu zen. 2018an 10garren izan zen Maialen garailearengandik minutu eta hamar segundora. Baina Xabier Zabala entrenatzaileak dioen bezala, «estropada guztiz desberdina izan zen. Marea, eguraldia, taldeak... dena aldatzen da denboraldi batetik bestera eta ezin dira emaitzak alderatu».

Orioko trainerua besteen aldean askoz ere hobeto dabil ematen du, eta orokorrean, maila jaitsi egin da Zabala iritzi. «Oriok aurrera-pausoa egin du eta gehixeago dabil, eta orokorrean, ontzi gehiago bai, baina mailak behera egin du. Nire irudipena



Aurreko astean, 'Maialen' traineruan, arraunean aritu ziren neskak.

Argazkia: Hernaniko Arraun Elkartea

Martxoaren 30ean San Pedron bigarren jeitsieran hartuko dute parte. «Ordurako kanpotik lau arraunlari etorriko dira eta aurrera pausoa eman beharko genuke»

da. Orio besteekiko desberdintasunak markatzen ari da, eta besteekiko pasa den urteko denbora aldeetan ibili ginen. Hala ere, zaila da ondorioak ateratzea».

Helburua beteta aurreneko estropadan

Lehenengo estropada zuten arraunlariak bazeuden, garai batean utzitakoak eta berriz hasitakoak ere bai. «Gehientsuenak lehenengo estropada zuten». Aurrera begira kanpotik errefortzuak ekarriko dira. Trainerua uretan ikustea poztekoa da. «Helburua bete genuela uste dut ikusita zer baldintzetan, jende berri askorekin, irten ginen. Lasaitasuna mantendu behar da, orain urduri jartzen hasten baldin bagara, bide horretatik ez dago

gauza onik. Lanean ongi ari gara, estropada hauekin asko arduratu gabe».

Denboraldi hasieran hamar-hamaika arraunlari bazeuden entrenatzen eta kopuru hori gehitu da. «Urtarrilera arte zain egon behar zen ea nola zijoazen gauzak, eta dagoeneko martxoan gaudela ikusita, ziurtatu dezakegu udaran trainerua egongo dela». Aurre-denboraldiko entrenamenduetan llagutean batzuetan, eta traineruan bestetan, entrenatzen dute.

Udara iristean kanpotik etorri daitezke arraunlari gehiago. Agian beste talderen batean lekuri ez duen arraunlari bat. Pasa den urtean Kataluniako hiru arraunlari egon ziren Hernanin eta aurtengorako ere «ilusioarekin



4.000 metroko ibilbidea osatu zuten.

Argazkia: Iñaki Suarez Calleja

daude bueltatzeko hiru bada-lonatarak» esan zuen Zabalak azaroan.

Datorren jeitsiera San Pedron eta batel estropadak

Hurrengo estropadari begira, hitz horiek esan, eta hiru hilabete eta erdi geroago esan daiteke bertan egongo direla egun batzuk barru. «Kanpotik ekarriko ditugu eta martxoaren 30ean Pasai San Pedroko jeitsieran irtengo dira». Hura izango da urteko bigarren traineru estropada eta udara aurretik egingo den azkene-koa.

«Traineruan asko ibili gabe irtengo dira. Kataluniar bat eta hiru valentziar etorriko dira. Aurrera pauso bat eman beharko genuke, gaztetxoek geratuko baitira arraun egin gabe eta, nahiz eta kanpokoak berriak izan, traineruan gutxiago ibili diren llagutean konpetitzen ari dira. Konpetizio puntu hori hartua izango dute». Bateleko ligaxkan ez dira parte hartzen ari, baina entrenatzaileak hurrengo bi estopadetara eramango ditu. «Zumaian eta Ziburun dira eta egingo ditugu konpetizioak erritmoa hartzeko. II

ARTIKUTZA



Enobietako erreka agerian geratu da hustutako urtegiaren buztanean.

Urik gabeko urtegi, orain laborategi

Enobietako urtegia hustutzen ari dira. Añarbekoa egin zenetik, alferrikakoa da, eta dagoneko ez ditu egungo arauak betetzen. Ingurune paregabean dago, gainera; Artikutzan. Ingurunea bere egoera naturalera itzuli eta presa desagerrarazteak izango dituen ondorioak aztertzen ari da EHU, eta Donostiako Udalak Artikutza erosi zuela 100 urte betetzen diren honetan, monografiko bat egiten ari da Aranzadi.

KOADERNOA, boligrafoa eta koordenadak neurtzeko gailua hartuta, hor ari da Alberto Gosá Aranzadiko herpetologoa, Ane Fernandez kidearekin batera eta Josu Zumeta basozainak lagunduta, Artikutzako anfibio eta narrastien bila. Urte sasoi honetan baso igel gorriaren arrautzak eta zapa-buruak topatzea da ohikoena.

Aurten betetzen dira 100 urte Donostiako Udalak lur hauek erosi zituela, eta urteurrenaren bueltan, Artikutzako fauna, flora eta ondare etnografikoaren inguruko monografiko bat osatzeko eskatu dio Aranzadiri. «Ezaguna eta ezezaguna da Artikutza, misterio-

tsua» dio Zumetak. Misterio horrek erakarrita, agian, hara non azaltzen diren Goizueta aldetik datorren Elama errekarri jarraiki bi ardi, txuri eta beltz, lurrak beinhola haienak izan zirela ere gogoraraziz.

Enobietako errekarekin elkartu eta behera egiten dute bi urek Añarberaino. Eta bai, erreka aipatu behar da. Izan ere, Enobietako urtegia hustutzen ari dira. «Hito historikoa», Gosáren iritziz, estatuan hustutzen den aurrenekoa izaki. Dagoeneko dena hustuta dago. Arturo Elosegi, EHUko biologian doktorea ari da urtegia desagerrarazteak ekarriko dituen ondorioak neurtzen. De-



Enobietako urtegiako presa gainean, Jon Zumeta basozaina eta Alberto Gosá herpetologoa.

nen asmoa da «laborategi natural» bihurtzea, Artikutza. Misterioak argitzen hasteko bideari ekiteko pronto daude, edo agian, misterio berriekin topo egiteko puntuan!

«Laborategi natural zoragarria»

Misterioak argitzeko ikerketa egitea beharrezkoa da, eta horretan ari dira Artikutzan, hainbat aditu. Gosá herpetologoaren esanetan, «laborategi natural zoragarria da, urte

asko baitaramazki tratamendu gutxiarekin». Arturo Elosegi EHUko biologoa ere ados dago; «Euskal Herriko leku dibertsoenetako bat da Artikutza, alde haundiz. Oso leku gutxi daude horrelako balioa dutenak. Orain 100 urte inguru beste edozein haran bezalakoxea zen, eta 100 urte hauetan beste guztiak degradatu egin dira. Baina Artikutza gero eta naturalago bilakatu da. Beraz, hemen izugarrizko dibertsitatea dago. Eta gainera, badauka,

nere ustez, balio oso berezi bat, eta da, jabea kontserbazionista dela. Proposatu dizkiegun neurriak segituan hartu dituzte, eta kontserbazio maila igo egin da. Garai batean baziren zazpi presa txiki, duela 80 urte urak Donostiara eramateko. Aste-betean kendu zituzten. Benetako harribitxi bat da, ez dena bere balio osoan apreziatzen».

Orain, gainera, harribitxia are preziatuagoa egiteko proposamen berriak egiteko garaia iritsi da, urtegia hustu eta

Artikutzako landareak

*Iturria eta argazkiak: Iñaki Sanz-Azkue (Aranzadi).

Jarraian agertzen diren landareetako asko babestuak daude edo urriak dira Nafarroan. Ereku irekietan, basoetan, erreketan, erreka ertzetan eta harkaitzetan agertu ohi dira. Artikutzako errekek ibarbasoa ondo kontserbatua dute, orokorrean, eta nahiko ilunak, malkarrak eta hezeak izaten dira. Horrez gain, bertan dagoen lurzorua azidoa da hein handi batean, beraz, horrek guztiak landare bitxi, berezi hauentzat gune aproposa izatea eragiten du.

ERREKAKO ETA ERREKA INGURUKO LANDAREAK



Soldanella villosa

Pirinio atlantiarreko mendebaldean eta Kantauriar isurialdean banatzen den endemismoa da; munduan beste inon ez dago. Esan daiteke Artikutzako ikurra dela landare hau; Artikutza, Aiako Harria eta Urumeako bailara izango dira, ziur asko, mundu mailan gehien dagoen gunea. Ur-salto eta erreka ertzeko harkaitz-pareta hezeetan aurkitzen da batez ere; erreka ilun eta hezeetako ezpona, ertz eta iturburuetan, substratu silizeoekin erlasionatutakoetan. Maiatza inguruan loratzen da eta lore larrosa-morea bota ohi du.

Saxifraga clusii

Gouan landare iraunkorra da, erroseta bat edo batzuk garatu ditzake, 40 cm arterako eskapo loredun zuzenak, normalean bakarra, garatzen du eta hostoak oinaldekoak ditu. Ekaina eta uztaila bitartean loratzen da. Errekasto eta iturburuen ertzetan bizi da, substratu silizeoetan eta toki hezeetan. Europa hego-mendebaldeko mendietan banatzen da, Frantziako Cevennes mendilerrotik Pirinioetako mendebaldeko mugaraino: Aiako Harria, Bortziri ingururaino. Gipuzkoako Berastegiko zita da mundu mailan mendebaldean kokatutakoa, eta hurrengo, Leitzakoa. Goizuetan, Ezkurran, Arantzan eta Sunbillan ere badago. Azken hauek izaera erreliktikoa dutela pentsatzen da; klima heze eta hotzagoa zeneko garaietako azken aztarnetariko bat dira.

Hymenophyllum tunbrigense

Tamaina txikiko iratze zeharrargia da, Artikutzan bi gunetan topatu dena. Gustoko ditu negu epel eta hezetasun atmosferiko altuko eremueta harkaitz silizeo itzaltsuak. Berezi Makaronesiar irletan banatzen da eta Europan populazio sakabanatuak ditu. Iberiar penintsulan, Kantauri isurialdean puntualki azaltzen da; Nafarroan, Baztan, Bortziria, Bidasoa eta Urumea bailaretan.

Vandenboschia speciosa

Banaketa zabala duen iratzea: Europako mendebaldean, Afrikako kosta atlantiarrean eta Amerikan dago. Urumeako bailara askotan banaketa zabala du, eta Artikutzan horrenbeste ez dagoen arren, iratze berezi hau *Hymenophyllum tunbrigense* iratze subtropikala baino arruntagoa da bertan. Erreken ur-jauzietako zulo-guneetan, silizio substratuen gainean eta giro gerizatu eta hezeetan bizi da. Berezia da oso, zeharargiak direlako bere hostoak. Oso iratze zaharra da.



ARTIKUTZAN HARKAITZETAN AGERTZEN DIREN LANDAREAK



Huperzia selago

Ipar hemisferioko zona epel eta hotzetan banatzen da, baita Makaronesiar, Australian, Tasmanian eta Zeelanda Berrian ere. Banaketa zabalekoa izan arren, bere populazioak nahiko txikiak izaten dira. Europan, latitudean behera joan ahala, gutxiagotu egiten da. Iberiar penintsulan Kantauriar mendikatean eta Pirinioetan dago; Artikutzan 800 metro inguruko altueran dagoen harkaitzetan topatu da.

Petrocoptis pyrenaica

Errosetak dituen 20 cm inguruko landare iraunkorra da. Oinarrian peziolo zahar iraunkorak ditu, hosto-ijelkia ile luzez hornitua, kaliza ileri gabea, petaloan kalizaren luzeraren bikoitzak eta kolore txuri edo arrosa ahulekoak, eta 1 mm-ko diametroko haziak ekoizten ditu testa beltzarekin. Maiatza eta abuztua bitartean loratzen da eta granito eta eskistoen zirrikitu eta estraplomoetan bizi da.

ZELAIETAN AGERTZEN DIREN LANDAREAK

Narcissus bulbocodium

Espezia oso aldakorra da, bereziki kolorazioa dela-eta. Artikutzan N.bulbocodium subsp. citrinus aldaera topatu da, lore hori apalekoa. Banaketa atlantiarra du: Frantziako Landetatik Asturiasko lurretaraino zabaltzen da, itsas mailatik 1.300 metroko altitudetan. Nafarroan ohikoa goa da ipar-mendebalde aldean. Habitat irekiak

nahiago ditu baina hainbat habitat ezberdinetan agertzen da: larre heze, ihidi, iratzedi, albizti eta otadi-txilardiak.

Narcissus pseudonarcisus

Iberiar penintsulako iparraldeko endemismoa da. Nafarroa iparraldean banaketa nahiko zabala du.

Artikutzako anfibio eta narrastiak

*Iturria: Alberto Gosá (Aranzadi) eta 'Hernaniko eta ingurueta anfibioak eta narrastiak' liburua

Artikutzako anfibio eta narrastien inguruan oso gutxi ikertu dela dio Albe «gehiago anfibioen inguruan; narrastien inguruan ia ezer ez». Artikutza «da, 100 urtetan oso gutxi ukitu da. Anfibioen faunarako egokia da, eguzki askatu daitezkeelako; ospelak ez die eragiten. Baina narrastiei bai. Ingurutzat. Hauek ingurune altuagoetan egon daitezke, eguzkiaren eragina nabe harrokatsuetan edo zuhaitzen erorketaren edo antzekoen eraginez sortutaskotan egon daitezke. Dena den, beste kontu bat da ugalketarako tokirikur geldoak, putzuak». Denara, 7 anfibio espezie egon daitezkeela kalkulatu. Narrastiak, berriz, 12 izan daitezke, eta 8 egiaztatuta daude.

ANFIBIOAK

Egiaztatuak: arrabio arrunta, uhandre palmatua, txantxiku arrunta, apo arrunta, daiteke: uhandre piriniarra.



Uhandre palmatua

Europa mendebaldeko espeziea, nahiko arrunta da Euskal Herrian; bertako anfibio itsas-dunetan txiki eta arruntena da. Basoetako putzuetan egoten da eta ugaltzeko, otsailetik ekainera, uretara gerturatzten da: laku, putzu, aska, ubide, erreka geldoetara... Hostoetan jartzten ditu arrautzak, banaka. Azal fin arrekoa da. Begietatik 'antifaz' marroia pasatzen zaio.



Arrabio arrunta

Ohikoa da Euskal Herrian, prezipitazio haundiko tokietan. Baso hosto-erorkorrek gustatzen zaizkio: pagadi, harizti eta baso misto hezeak. Uretatik nahiko gertu egoten da. Gautarra da, eta egunez orbel, goroldio, harri eta zuhaitz-enbor ustelen azpian ezkutatzen da. Apirila eta maiatzan ugaltzen da. Haundi eta sendoa da, hori eta beltza, isats zilindrikoduna, buru zapalekoa, mutur borobildu eta begi haundikoa. Likido zuri toxikoa isurtzen du.

kendu egingo baita. Hala azaldu du Zumeta basozainak. «Urtedia hustu egin behar da, dagoeneko ez baititu betetzen Europatik eskatzen diren arauak; zaharkitua dago eta ez da erabiltzen. Inbertsio haundia egin beharko litzateke, eta mendia asko kaltetu...». Elsegiren esanetan, duela 3 urte hartu zuen Donostiako Udalak erabakia. «Orain dela bost bat urte, Donostiako Udalak lan bat eskatu zigun, esan geniezaien presa kenteak bioaniztasunari onurarik edo kalterik ekarriko liokeen. Iruditzen zaiugu arroaren naturaltasunaren aldetik eta biodibertsitatearen aldetik, oso onuragarria litzatekeela. Hori horrela, duela hiru urte erabaki zen presa kentea».

Horretarako, aurrena hustu egin da. Elsegiren ustez, «oso poliki». Izan ere, «urtarrilaren 18rako hustuta zegoen, eta behin hustuta, egin behar zen hondoko atea erabat ireki, baina ireki zuten pixka bat». Euriaren eraginez berriro ere igo egin zen ur maila, baina azken datuen arabera, guztiz

hustu da, dagoeneko. Bigarren fasea litzake, presa eraistea. «Bere garaian aipatu zen presa guztiz kentzea kaltegarria izango litzatekeela, hormigoia ateratzeko 100.000 kamioi behar liratekeelako, eta pentsatu zen presaren azpitik tunel bat egitea arrainak eta abar bertatik ateratzeko». Badirudi maiatzeko hauteskundearen aurretik aterako duela Donostiako Udalak lan horiek egiteko lehiaketa publikoa.

Modu batera edo bestera, «Europan hustu eta kenduko den urtegi haundiena» izango dela azpimarratzen du Zumeta basozainak, eta beraz, «ikusia ahal izango da zer gertatzen den eta nola berreskuratzen den dena».

Batzuei onura, besteei kalte

Momentua aprobetxatuta, Arturo Elsegi eta bere taldea aztertzen ari dira «hustuketak eta presa eraistek bioaniztasunean ekarriko dituen ondorioak», BBVA fundazioaren ikerketa proiektu bati esker. «Garai batean ikusten genuen baietz, oso onuragarria izango

ua. Argazkiak: Iñaki Sanz-Azkue eta Egoitz Alkorta
erto Gosá, Aranzadiko herpetologoak;
oso ondo kontserbatutako baso-habitata
argiaren kanpo energia ekarpenetik
ne hau ez da hain egokia narrastien-
armenagoa den larreetan, ingurune
daitezkeen soilguneetan. Anfibioak toki
baduten. Ubide gehiago behar dituzte,
zen du, eta horietatik 6 egiaztatu ditu.

baso-igel gorria, ur-igel arrunta. Aurki



Baso-igel gorria
Europako parte haundi batean aurki-
tu daiteke; Euskal Herri osoan ere
bai, eskualde atlantikoan. Habitat
ohikoena basoak dira, bereziki, hariz-
ti eta pagadiak. Urritik martxora
ugaltzen dira; emeak 1.000-2.000
arrautzako erruteak jartzen ditu,
askotan, mendi pistetako putzu-zulo-
etan. Igel nahiko haundi eta sendoa
da, mutur motzekoa, begi atzeko tin-
pano markatukoa, gehienetan gorrix-
ka eta sabelalde txuri-horixkakoa.

NARRASTIAK

Egiaztatuak: zirauna, musker berdea, horma sugandila, sugandila bizierrulea, iparraldeko suge leuna, eskulapioren sugea, suge gorbata-duna, sugegorri kantauriarra. Aurki daitezke: sugandila arrea, hegoaldeko suge leuna, suge berde-horia, suge biperakara.



Zirauna
Hankarik gabeko narrastia izan arren, ez da sugea; muskerren taldekoa da. Metro erdi neurtzera iritsi daiteke. Arra arre-grisa izaten da, eta emea marroia, burutik buz-tanerako marra ilun batekin. Zabaldua dago Euskal Herrian. Habitat hezeak gus-tatzen zaizkio, landaredia dentsu eta baju-ko inguruak, baso hosto-erorkorrak. Apiriletik uztailera ugaltzen da.



Musker berdea
Tamaina ertaineko muskerra, berdea, kolora-zio aldakorra badu ere. Burutik isatsera, biz-kar aldean puntu beltz ugari dauzka. Ugaltze-garaian, apiriletik eainera, lepo-eztarri alde-ak kolore urdin deigarria hartzen du arretan. Iberiar penintsularen iparraldean, Frantzia eta Italian ageri da. Belardi, baso eremuak, sastraka hezeak... gustatzen zaizkio; Kantauri isurialdean, zona hezeak.



Sugandila bizierrulea
Tamaina txikiko sugandila, hanka motz eta buru borobildukoa. Kolorazio-patroi aldako-rrekoa; normalean nabarra du bizkarral-dea, eta aldeetan marra beltz edo marroiak. Gaztetan oso iluna da. Zabaldua dago European eta Asian. Iberiar peninsula-ko eta Euskal Herriko iparraldean agertzen da, zonalde heze eta freskoenetan; zingira, erreka ertz, belardi...



Iparraldeko suge leuna
Suge txikia. Gorputzaren aldean, buru txikikoa. Arre-gorri eta grisa izaten da, orban belzduna eta azpialde beltz-grisekoa. Marra iluna izaten du bururen bi aldeetan. Europa osoan dago; penintsularen iparraldean oso arrunta da. Sasi, zuhaixka, baso eta zelai hezeetan bizi da.



Sugegorri kantauriarra
Aipatutakoetan pozoitsu bakarra. Gorputz lodi, isats motz, triangelu formako buru eta begi-nini bertikalekoa. Marroi-gorritzka izaten da. Iberiar penintsulako ipar-mendebaldeko endemismoa da (bertakoa). Euskal Herrian klima atlantikoan agertzen da, baso eremu heze eta irekietan. Baina termoregulazioa ahalbidetzen duten argiuneak behar ditu.

«Urtegia habitat artifizial bat da, eta bertan bizi behar luketen espezieei eragiten ari da; esaterako, Pirinioetako muturluzeari»

litzatekeela, eta momentuz ikusten ari gara eragina badu-ela. Esate baterako, presa azpi-an eta Artikutza auzoan nahi-ko metal kontzentrazio haun-diak daude, eta susmoa badu-gu hori dela bertan dagoen ornogabe komunitate pobrea-ren eragile nagusia. Urtegiaren ondoan oxigenoa falta denean askatzen dira burnia edo man-ganesoa bezalako metalak, eta errekan behera abiatzen dira. Presa kentzean oxigeno falta-rik ez da izango, eta hori desa-gertu egingo da».

Alberto Gosá, Aranzadiko beste hainbat aditurekin bate-ra, berriz, Artikutzako fauna eta floraren inguruko informa-

zioa biltzen ari da Donostiako Udalak eskatutako monografi-korako, eta aprobetxatu nahi izan du proposamen bat egite-ko. «Enobietako errekaen erritmo hidrologiko normala berreskuratzean, ikusi nahi nuena zen zein aukera dagoen anfibio eta bestelako fauna batentzako inguruak sortzeko, urtegia zegoeneko lekuan elka-rrekin lotutako putzu eta heze-guneak sortuz».

Izan ere, Artikutzako ingu-runea, «anfibioentzat egokia da, eguzki argiaren kanpoko ekarpen energetikotik askatze-ko gai baitira; ospelak ez die eragiten. Baina narrastiei bai. Teorikoki baso ingurune hau desegokiagoa da narrastien-tzat, anfibioentzako baino. Nar-rastia gorago dauden gunee-tan egoten dira, eguzkitan dau-den larreetan, ingurune harro-katsuetan edota zuhaitzen erorketaren eraginaren ondo-rioz edo antzekoengatik sortu-tako soilguneetan. Beste kontu bat da anfibioek ugalketarako nahikoa leku ote duten. Ubi-deak behar dituzte, ur masa geldiak, putzuak».



Arturo Elosegi biologoa.

Presak kentzean, beraz, espe-zie batzuei mesede egingo zaie, eta beste batzuei kalte. Elosegi ere halaxe dio. «Urtegia gaur egun habitat artifizial bat da, eta bertan bizi behar luketen espezieei eragiten ari da. Esate baterako, Pirinioetako mutur-

luzea edo satorrari. Hau erreka lasterretan bizi da. Garai bate-an hor erreka laster bat bazen, eta gaur egun daukaguna da erabat habitat artifiziala, eta ez dago satorrik. Pentsatzen dugu, garai bateko erreka berriro ere nola ari den sortzen ikusten ari

garenez, poliki-poliki bertako espezieek kolonizatuko dutela. Noski, edozein aldaketa egiten denean, batzuk irabazten ate-ratzen dira, eta besteak ez. Buelta dezentetik eman zaio. Galtzaileen artean ahateak eta horrelakoak egongo dira. Ez



Ganaduari itxita dago Artikutza, baina noizean behin agertzen da ardi galduren bat.

«Euskal Herriko leku dibertsoenetako bat da Artikutza»

dira asko, eta ez dute garrantzia haundirik. Beste harribitxi bat da ur-satorra. Momentuz populazio ona mantentzen da, eta urtegia kentzean ia bi kilometro erreka gehiago izango ditu».

Egin daitekeen unea

Aldaketa hauek anfibioetan eragin dezaketen kalteari aurre egiteko proposamena da Gosárena. «Urtegiaren erdialdetik buztanera aukera polita dago putzuak sortzeko. Elasegiren taldearen planteamenduaren arabera, presa txikien, eta azkenik, urtegiaren eraistekin lortu nahi dena da Enobietakoa bezalako erreken erritmo hidrologikoa errekupe ratzea. Errekek bere bide naturala jarraitzeak onurak dakarzkie makrobentonikoen komunitateei; hala nola, intsektu, krustazeo edota korrontedun uretan bizi den fauna askori, eta baita ere, Artikutzako harribitxiari, muturluzeari ere. Pentsatuta dago garrantzitsu gisa katalogatutako opnodun ugaztun espezieen populazio eta intsektu makrobentonikoentzat, eta hauek dira ibai sistema baten ur kalitatearen bioadierazgarri onenak. Baina onura gutxi dakarzki anfibioak bezalako faunarentzat». Horrexegatik, monografikorako espezie hauen populazio kopurua neurtzeko pistetako putzu-zuloetan begiratzen du Gosák, eta baso igel gorrien hainbat arrautza ikusi ditu.

«Nahi nukeena da inguru aproposak sortu ahal izatea, burruntzi eta sorgin-orratzak bezalako odonatoentzat, ur flo-



Pareta eraistea (ezkerrean) da geratzen dena, Enobietako urtegia desagerrarazteko.



Misterioz betetako ingurunea da Artikutza.

rarentzat ere onuragarriak liratekeenak. Argumentu asko dago horrelako ekosistemak lortzen saiatzeko!». Anfibioez gain, beraz, bestelako espezieak ere buruan dauzka. «Uretako flora ere, adibidez, ez da mota berdinekoa erreken ubideetan, mendiko uharretan edo ur geldoko putzuetan. Beraz, fauna eta florarako aukera zoragarriak sortuko genituzke. Eskura dauzkagun aukerak dira, eta aprobetxatu egin behar ditugu. Egin daitekeen une historikoan gaude, urtegia orain arte bertan egon baita».


Orainetik, etorkizunerako

Gosák anfibio eta narrastietan da aditua, baina haren esane-

tan, errekupe ratu daitezkeen espezie gehiago ere badira; «hainbat arrain; aingirak, izokinak... Presarekin, errekan gora egiteko aukera galdu zuten, baina presa kenduz gero, berreskuratu egingo dute; orain arte Añarberaino iristen dira. Hernanin, esaterako, uraren kalitatea hobetzeaz gain, denbora da presak kentzen hasi zirela. Pentsamendu aldaketa izan da, ur ibilgu naturalak, originalak berreskuratzearen alde. Enobietako urtegia kentzea proiektu aitzindaria izango da, eta informazio asko eman go digu, aurrerantzean nola aritu eta emaitza bat edo beste izateko jarraitu beharreko metodologiaren inguruan». ■



Ane Fernandez eta Alberto Gosá herpetologoak, anfibio bila.



Bide bazterreko putzuetan aurkitzen du igel-gorriak ugaltzeko tokia.

ARTIKUTZA HISTORIA



Donostiako Udalak eskuratu arte, hainbatek ustiatu du Artikutza.

Artikutza, eskuz esku

XIII. mendekoak dira Artikutzari buruzko aurreneko aipamenak. Anizlarrea izeneko lursailaren parte zen Artikutza, eta Orreagako Santa Maria Kolegiataren mende zegoen. XIX. mendera arte Kolegiatak ustiatu zituen bertako burdinola, ikatza egiteko eskubidea, meatzeak, basoak eta larreak, edo errentan ematen zituen.

Urteak joan eta urteak etorri, ordea, Goizuetak Anizlarrearen gainean zituen eskumenak haunditu egin ziren pixkanaka, eta beraz, baita Goizueta eta Kolegiata nahiz beste errentarien arteko lisakarrak ere. 1815ean sinatu zuten adiskidetasun hitzarmena: Anizlarrea berriaren 5.477 hektarea Goizuetaren mende geratu ziren, eta Aniz-

larrea zaharraren 3.770 hektarea Orreagaren mende; egungo Artikutza barne.

XIX. mendeko desamortizazio prozesutik libratu zen hasieran Kolegiata, Maria Cristina erreginaordearen eraginez, baina azkenean desjabetu, eta enkantean atera ziren. 1844tik hainbat jabe izan zituen, eta meategiak ustiatu zituzten.

Donostiako Udalak 1919an erosi zuen eta kanal sare haundia eraiki zuen iturburu guztietako urari etekina atera eta Donostia hornitu ahal izateko. Ura kutsatzeko moduko jarduerak ere galarazi zituen. 1950-1960 urteen artean Enobietako urtegia eraiki zuen, eta sortutako arazoak medio, 1975ean Añarbekoa, egun Donostialdea hornitzen duena.

■ GAZTELEKUA

Mutil eta neskentzat tailer bana, Harremanak elkartearekin

Gaur izango da aurrenekoa mutilentzat: ‘Mutila naiz, eta zer!?’.
Arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara izango da, Gaztelekuan.

BERDINTASUNAREN hilabetea da martxoa, dudarik gabe; aurreko astean izan zen Emakumearen Nazioarteko Eguna, eta horren bueltan, bi tailer antolatu ditu Astigarragako Gaztelekuak.

Mutil eta neskentzat egingo dute tailer bana, gaur eta gaur zortzi.

Mutilentzat, aurrenekoa

Harremanak elkartearekin batera egingo dituzte bi tailerrak, gaurtik hasita. Mutilentzat izango da aurreneko saioa, *Mutila naiz, eta zer!?* izenburu-

rupean.

Bigarrena, neskei zuzentzen zaiona, hurrengo larunbatean, gaur zortzi izango da; *Ez, ezetz da!* izenburupean egingo dute hori.

Bi saioak irekiak eta debaldekoak izango dira, eta arratsaldeko 17:30etatik 19:30etara burutuko dira, Gaztelekuan. Eta bereziki 12 eta 18 urte bitarteko nerabeei zuzenduta egongo dira.

Bozketa, bihar arte

Horrez gain, logoa berritzeko bozketa ere martxan dauka As-

tigarragako Gaztelekuak, eta bihar izango da azkeneko eguna, gustokoenaren alde egiteko. Gaztelekuan ikusi daitezkeen hiru proposamenen artean aukeratu ahal izango da.

Etzitik 31ra bitarte, aldiz, bozkatuenaren inguruan aldatak eta proposamenak egin ahal izango dira. Ekarpenekin, apirilaren aurkeztuko da logo berria.

Multikirola, bihar ere

Ohiko jarduerekin ere jarraituko dute; eta multikiroletarako zita jarri dute, biharko. ■

■ ZINEA

‘Maya erlea: ezti jokoak’ filma, gaur

Arratsaldeko 17:00etan jarriko dute marrazki bizidunetako pelikula gaur.

HAUR eta helduek, familiaretan plana egiteko aukera izango dute gaur, Udaltzaia euskeraz sailaren eskutik.

Maya erlea: ezti jokoak pelikula ikusteko aukera izango dute astigartarrek gaur, kultur etxean. Arratsaldeko 17:00etan jarriko dute, adin guztietako

ikusleentzat. Pelikula euskeraz jarriko dute.

Sarrerak, salgai

Dagoeneko salgai daude sarrerak www.astigarraga.eus webgunean. Egunean bertan ere erosi ahal izango dira kultur etxean, 2 euroren truke. ■

■ SAGARDOETXEA

Bisita gidatua, bihar ere

Martxoaren hasierarekin, *Emakume ekintzaileak sagardogintzan erakusketa* jarri zuten Sagardoetxean XVI-XVIII. mendeetako Gipuzkoako lau emakumeren istorioak ezagutzera emateko. Egunero bisitatu daiteke hori, Sagardoetxearen ohiko ordutegian, baina gainera, igandero bisita gidatuak egiten ari dira, debalde. Goizeko 11:00etan egingo dute hurrengo bisita. Izena emateko: 943 550 575 edo info@sagardoarenlurraldea.com. Euskeraz edo gaztelaniaz egin ahal izango da. ■

■ GURASOLAGUN

Gurasolagun elkargunea, euskeraz aritzeko

Euskeraz dakiten gurasoek eta ikasten ari direnek bat egiteko elkargunea izaten da ostegunero Herri Eskolako areto nagusian. Arratsaldeko 16:45etatik 18:30etara elkartzen dira, eta haien haurrek ere Xagurzar taldeko begiraleekin egoteko aukera daukate. Doan da, baina izena eman behar da: iker-g@aek.eus edo 943 335 064. ■

■ ZUHAITZ EGUNA



Astigar bana landatu zuten igandean, jaiotako haur bakoitzeko bana.

Jaioberriek astigar bana, Larraburun

Zuhaitz Eguna egiten dute urtero Astigarragan; modu berezian, gainera. Aurreko urtean jaio zen jaioberri bakoitzeko astigar bana landatzen dute, eta halaxe egin dute aurten ere. Larraburu baserriaren inguruan, oraingo honetan ere, bertan elkartu ziren jaioberriak eta haien familiak (80 zeuden deituak), astigar bana landatzeko. ■

■ NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLA



Lau neska astigartarrak, jasotako sariekin.

Urre bat, bi zilar eta brontze bat, Andoaindik Astigarragara

Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasle batzuk ere piano jaialdian izan ziren pasa den otsailaren 16 eta 17an.

ANDOAINGO Piano Jaialdiaren 14garren edizioa izan zen pasa den otsailaren 16 eta 17an, eta bertan izan ziren Urumea baidarako ikasle asko, tartean, Astigarragako Norberto Almandoz Musika Eskolakoak.

Lau neska, bat aurreneko aldiz

Hain zuzen, lau neska izan ziren Astigarragaren ordezkari: Naiara, Mara, Uxue eta Uxue. Naiarak aurreneko aldiz hartu zuen parte A kategorian: beste-

ek, aldiz, aurreko urtetan ere hartu zuten parte, horregatik, B kategorian aritu ziren.

Ikasitakoa erakutsi ondoren, urre bat, bi zilar eta brontzezko bat lortu zituzten, neska astigartarrek. ■

■ EH BILDU PRENTSA-OHARRA

EH Bildu «pozik» Galtzaur kalea asfaltatu eta kultur etxeko bidea argiztatu izanagatik

Udal gobernuak 4 urtetan egin ez duena azkeneko 3 hilabetetan egiten ari dela kritikatu du Astigarragako EH Bilduk.

HAINBAT lan egin ditu Udalak azkeneko hilabeteetan, besteak beste, Galtzaur kaleko asfaltatzea eta Maskarrene bidearen (udaletxetik egungo kultur etxera doan bidea) argiztapena. Horiekin «pozik» agertu da Astigarragako EH Bildu, baina kritikatu du udal gobernuak 4 urtetan egin ez duena, azken 2 hilabetetan egiten ari dela: «Astigarragaren alde eta txukun egiten bada, gaitzerdi!», adierazi du.

2017ko aurrekontuetan, Galtzaur kalea asfaltatzea Ohar berean azaldu dute, baita ere, Galtzaur kalea asfaltatzea EH Bilduk proposatu zuela 2016ko abenduan, 2017ko au-

«Astigarragaren alde eta txukun egiten bada, gaitzerdi!»

rrekontuetako emendakinetan: «2 urte itxaron behar izan dira egina ikusteko. Eragozpen gutxien sorrarazteko, 2018ko udan egitea egokiena zitekeela alde batera utzita, beharrezko obra bat zenez, EH Bilduk positiboki baloratzen du», onartu dute.

Argiztapena «aspaldiko eskaera»

Bestalde, Maskarrene bidearen argiztapena EH Bilduren «as-

paldiko eskaera» dela diote: «Aurreko legealdian, Goiko Iturri parean argiztapena indartu zen, baina lanak bukatu gabe geratu ziren. Ordutik, EAJk ez du ezer egin».

Gainera, gogorarazi dute «neurri hau EH Bilduk proposatutako Mapa Morearen ekimenen aurreikusita dagoela, baina EAJ ez da gai izan, edo ez du nahi izan orain arte ezer egin». Izan ere, «Mapa Morean herri osoan zehar herritarrak modu seguru eta askean ibiltzeko lan ugari jasotzen dira».

Dena den, «lau urteren ondoren bada ere, EH Bilduk pozez hartzen du behar-beharrezkoa zen ekimen hau gauzatu izana». ■

■ ASPEGI SARIAK



Astigarragaren ukitua duten sariak

Emakume enpresari eta zuzendari sariak banatu zituen otsailaren 28an Aspegi elkarteak, eta biak bete-betean joan ziren Astigarragara. Aurrenekoa Maria Herrero Eizmendik jaso zuen, Astigarragan dagoen Herrekor S.L.U. enpresako kudeatzaileak. Eta bigarrena, aldiz, Nekane Arzallus Iturizak, Gipuzkoa Basket Club (GBC) taldearen lehen-dakariak. Aspegi elkarteak laugarren aldiz banatu ditu sari hauek Donostiako Aquariumean. ■



■ XAGUXAR AISIALDI TALDEA

Hileroko hitzordua Xaguxarrek, 23an

Gaur zortzirako antolatu dituzte jolas eta tailerrak; kultur etxean izango dira.

HILERO eskaintzen die aukera Xaguxar Aisialdi Taldeak astigartar gaztetxoenei ondo pasatzeko. Larunbat arratsalde baterako plana egiten du, eta dagoeneko zehaztu du martxokoa noiz izango den. Gaur zortzirako, hilaren 23rako, ja-

rri du hitzordua.

Ohi bezala, arratsaldeko 16:30etatik 18:00etara bitarte izango da, kultur etxean.

Bereziki 4 eta 12 urte bitartekoei egin diete deia, Xaguxarreko begiraleekin batera jolasak, eskulanak... egiteko. ■

■ HITZALDIA



Areto nagusian hitz egin zuen ostegunean, Iñaki Olaskoagak.

Emozioen eraginaz, Iñaki Olaskoaga

Herri Eskolako guraso elkarteak bultzatuta, hitzaldi eta solasaldi asko egiten dituzte ikasturtean zehar. Ostegunean egin zuten horietako bat, ikasketak eta emozioak uztartu zituen Iñaki Olaskoaga psikologoak. ■

■ ASTEKLIMA



Jakoba Errekondo izan zen hizlarietako bat asteazkenean.

Klima aldaketaren aurrean, begiak irekitzeko unea

Astigarragako Udalak bat egin du Asteklima, Euskadiko aurreneko klima-aldaketaren astearekin. Erakusketaz gain, mahai ingurua egin zuten asteazkenean Jakoba Errekondo (agronomoa eta paisajista), Arturo Elosegi (EHUko ikerlaria) eta Xabier Estebanekin (aholkularia). ■

TXIRRINDULARITZA

Errepideko denboraldian bete-betea, txirrindulari guztiak

Aurreko astean hasi zuten denboraldia txikienek, alebin eta infantilek. Hernanin, Bergaran, Altsasun eta Alkizan izango dituzte asteburu honetako probak txirrindulari astigartarrek.

ERREPIDEKO denboraldian bete-betea murgilduta daude Astigarragako maila guztietako txirrindulariak. Duela aste batzuk hasi zuten ibilbidea maila altuenetan daudenek, eta pasa den asteburuan alebin eta infantilen txanda izan zen.

Erreterian, aurrenekoa
Larunbatean izan zuten errepideko aurreneko zita gaztetxoek, Erreterian. Alebin mailan, 46 txirrindularik hartu zuten parte, tartean bost astigartarrek; Zumaiena ikastolako Asier Aizpurua izan zen garaile, eta beranduago iritsi ziren astigartarrak: Aimar Capdequi 15garren, Beñat Auzmendi 17garren, Unai Hernandez 29garren, Daniel Chapartegi 31garren eta Ekhi Rabanedo 40garren.

Infantil mailan, aldiz, 40 izan ziren, eta lau herritar zeuden haien artean: Tasio Semperena (7garren), Aimar Olasagasti (14garren) eta Eneko Oliveira (17garren).

Goierriko Itzulian, 23 azpikoak
Egun berean izan zuten zita 23 urte azpiko txirrindulariek, kasu honetan, Urretxuko Goierriko Itzuliarekin. Lasterketa gorabeheratsua izan zen, eta geldituarazi behar izan zuten, helmugatik 29 kilometrora erorketa jendetsua izan zelako.

Proba bearrabiarazita, txirrindulariak hoztu egin zirela nabaria zen. Dena den, Urre txuko helmugara bidean, sprintean abiarazteko gogoa ez zuten falta!

Goierriko TB Caja Laboraleko Mikel Paredes izan zen azkarrena, eta astigartarrak atzerago iritsi ziren: Urko Semperena 7garren izan zen, eta Xabier Mikel Azparren, aldiz, 42garren.

Geldialdia egin behar izan zuten igandean ere. Junior mailakoen txanda izan zen orduan, Azpeitian. Ibilbideko hasierako kotxea ibilbidez nahasteagatik gelditu behar izan zuten.

157 txirrindularik hartu zu-

ten parte, eta Astigarragatik, bertan izan ziren AMPOk Enekoitz Azparren, Bazpiko Jaime Romero eta Donosti Berriko Telmo Semperena, besteak beste. Enekoitz Azparren fabrito gisa atera zen, eta protagonista bat izan zen. Baina hirugarren izatea lortu zuen.

Izan ere, Altxarteko igoeran aurrea hartu zuen Sakana Groupeko Igor Arrieta, eta hark jaso zuen sari potoloena.

Igoera ederra egin zuen, baita ere, Jaime Romerok eta 11garren iritsi zen. Telmo Semperena, aldiz, 40garren izan zen.

Zita bikoitza, juniorrek
Asteburu honetan ere, denek izango dute zer jokatu. Alebin eta infantilak Hernanin izango dira gaur, eta Elite mailakoak eta 23 azpikoak, aldiz, Aiztondo Klasika izango dute bihar, Alkizan. Junior mailakoek zita bikoitza izango dute: gaur, Igorlako igoera Bergaran; eta bihar, Altsasuko Udaberri Sarian. ■

ESKU PELOTA

Udaberri Sariko hiru final, Txomiñenean

Arratsaldeko 17:00etan hasita izango dira; bigarrenetan arituko dira astigartarrak.

FALTA diren finalak jokatu, Udaberri Sariak banatuko dituzte asteburu honetan. Lau jaialditan emango zaio bukaera txapelketari; gaur izango dira horiek Aginagan, Mutrikun, Olaberrian, baita Astigarragan ere.

Hiru final, Txomiñenean
Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, hiru final jokatu dituzte Foru Plazako Txomiñenea frontoian, eskuz binaka, denak.

Aurreneko partidua kadetetako 2. mailakoen artean izan-

go da; Eibar (Azkargorta-Camina) eta Gazteleku (Beloki-Lanzeta) arituko dira aurrez aurre.

Bigarrenetan jokatu dute Mundarroko jubencil 2. mailakoek; Larrañaga eta Urdangarinek, Alde Zaharreko De la Torre eta Atxaren kontra lehiatu ko dira.

Eta bukatzeko, 2. mailako nagusien txanda izango da; Tolosa 2k (Zalakain-Esnaola) eta Intxurre 3k (Zubeldia-Alberdi) jokatu dute azkeneko txapela, Astigarragako frontoian. ■

FUTBOLA

Tolosarekin aurrez aurre gaur, moreak
Tolosaren kontra jokatu dute gaur Mundarroko mutilek etxean, Zarkumendegin. Arratsaldeko 16:00etan hasita izango da norgehiagoka, nahiko parekatuta dauden bi taldeen artean. Bien nahia izango da irabaztea; hiru puntuak lortzea ezinbestekoa daukate astigartarrek goiko postuetan jarraitu nahi badute, behintzat. ■

SASKIBALOIA

Aurkari zuzena gaur, kanpoan
Puntu bakarrak urruntzen ditu Astigarragako Mundarro eta Bosteko Iraul A taldea gizonetako probintziako 1go mailan; seigarren dago etxekoa, eta bosgarren, aldiz, kanpokoa. Sailkapenari buelta emateko aukera izango dute gaur astigartarrek Pako Yoldi kiroldegian. Iluntzeko 20:00etatik aurrera hasiko da haien arteko norgehiagoka, bertan. ■

ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Mut. Erregional Preferi	Mundarro-Tolosa	Zarkumendegin	Gaur 16:00
Mut. Jubencilak Ohor. n	Mundarro-Trintxerpe	Zarkumendegin	Bihar 12:15
Mut. Jubencilak 1go m	Mundarro-Danena	Zarkumendegin	Bihar 15:30
Nsk. Kadeteak	Luberri-Mundarro	Berion	Bihar 10:25
Mut. Kadeteak Ohor. n	Orioko-Mundarro	Mendibeltzen	Bihar 16:00
Mut. Kadeteak 1go m	Internacional-Mundarro	Matigoxotegin	Bihar 13:15
Mut. Infantilak 1go m	Gure Txokoa-Mundarro	Beran	Bihar 17:00
Mut. Infantilak 1go m	Mundarro-Vasconia	Zarkumendegin	Gaur 11:30
Infantil Txikiak	Vasconia-Mundarro	Pulion	Gaur 09:30
Alebinak A	Añorga-Mundarro	Ordizian	Bihar 10:00
Benjaminak	Mundarro-Antiguoko	Zarkumendegin	Bihar 09:30
SASKIBALOIA			
Mut. Gipuzkoako 1go i	Atletico SS-Mundarro	Aieten	Gaur 20:00
Nsk. Kadeteak	Zast 2003-Mundarro	Antonlanosen	Gaur 16:00
ESKU PILOTA			
Eskuz binaka jubencilak	Mundarro-Alde Zaharra	Astigarragan	Gaur 17:00



Taldeko argazkia egin zuten Mundarroko Kirol Elkartearekin joandakoek, Somporten.

Somportera irteera aurreko astean, elur artean

Ohiko jardueraz, hau da, kirol federatuaz eta eskola kirolaz gain ere, hainbat ekintza berezi antolatu ohi ditu Mundarro Kirol Elkartek. Horietako bat aurreko asteburuan burutu zuten; Aragoiko Somporteko iraupen eskiko estaziora egin zuten irteera asteburu osorako. Gaztetxo nahiz helduek elur eta mendi artean ondo pasatzeko eta, aldi berean, kirola egiteko aukera izan zuten. ■

I GOIZUETA KULTUR AGENDA

Kantari jarraitzeko zita, gaur

Karaokea egingo dute gaur, haur eta gurasoentzat, 18:00etan ganbaran. Inauterietako kantu eta dantzei emanen diete segida.

KANTU eta dantzarik ez dute falta izan, Inauterietan, goizuetarrek; eta martxa ederrean ospatu zuten Kontuen Eguna ere, aurreko larunbatean.

Martxa berarekin jarraitzeko, eta kantu eta dantzei segida emateko, gaur bertan jarri dute kultur agendako beste zita bat. Karaokea antolatu dute, haur eta gurasoentzat, udaltxeko ganbaran. Arratsaldeko 18:00etan izanen da.

Hurrengo ekintza, apirilaren 14an izanen da: *Errementari* pelikula jarriko dute. II



Goizetik gauera izan zen kantu eta dantzarako tarte, Kontuen Egunean.

Argazkia: FELIX LOIARTE

I GOIZUETA UMORE ONA ELKARTEA

Urteko batzarra gaur, Umore Onak

Arratsaldeko 17:00etan egingen dute, elkartean bertan, Bazkideen Ohiko Batzar Orokorra. Bertan onartuko dira bazkide berriak ere.

GAUR egingen du, Umore Ona Elkartea, Bazkideen Ohiko Batzar Orokorra. Elkartean izanen da, arratsaldeko 17:00etan hasita, aurreneko deialdian; edo bestela, ordu erdi beranduago, 17:30etan, bigarren.

Guztira, sei puntu landuko dituzte. Aurreko batzarreko akta onartu ondoren, 2018ko txostena eta balantzea aurkeztuko dute, eta baita 2019rako aurrekontua ere, onartu dadin. Gero, komisiio berriaren hautaketa

eginen dute; eta azkenik, bazkide berriak onartuko dituzte. Eskari eta galderei dagokiona da seigarren puntua.

Elkarteko bazkide guztiei luzatu diete gonbitea eta deia, batzarrera azaltzeko. II

I GOIZUETA SUHILTZAILEAK

Suhiltzaile boluntarioei aitortza, «herritar guztien lanagatik»

Suhiltzaileen Eguna ere izan zen martxoaren 8a, eta egiten duten lana eskertu zieten goizuetarrei, Nafarroako Suhiltzaileek.

EGUN seinalatua da martxoaren 8a; baina Emakumeen Eguna bakarrik ez, Suhiltzaileen Eguna ere bada, eta hala ospatu zuten, aurreko ostiralean.

Urtero bezala, ekitaldia egin zuten Iruñan, Cordovilla suhiltzaile parkean; eta errekonozimendua egin zieten Nafarroako Suhiltzaileek, boluntario aritzen diren 133 nafarrei. Horien artean, noski, Goizuetako taldeari ere eskertu zioten, suhiltzaile lanetan zein anbulantzi-

ekin, egiten duen lana eta daukan konpromisoa. Oroigarri baina eman zieten, taldeko kideei.

«Egun gogor hauetan ikusi da, parkeko taldeaz gain, herritar guztiek duten konpromisoa» Goizuetako suhiltzaile parketik adierazi dute, hala ere, errekonozimendu hori ez dela «gure taldearentzako bakarrik. Beti gu lagundu nahian zabilatzaten herritar guztientzat ere bada», nabarmendu dute.

Eta diote, azkeneko asteotako bi suteetan ikusi dela, herritarren konpromisoa: «atzeko egun gogor horietan ikusi da, Goizuetako parkeko taldekideez aparte, herritar guztiek daukaten konpromisoa herriarekiko, modu desinteresatuan bere laguntza osoa eskainiz».

Suhiltzaile boluntarioetako birekin egon da Kronika egun hauetan, eta datorren larunbatean irakurri ahal izango duzue erreportaje osoa, Kronikan. II

I EREÑOTZU JAI BATZORDEA

San Antonio jaiak antolatzeke, bigarren bilera asteazkenean

Arratsaldeko 18:30etan jarri du zita Jai Batzordeak, auzotar guztiei irekia.

HIRU hilabete baino gutxiago falta dira, San Antonio jaiak ospatzeko; eta dagoeneko hasi dira lanean auzotarrak, festak nolakoak izango diren erabakitzeko eta prestatzen hasteko.

Duela hamar egun egin zuten aurreneko bilera, martxoaren

6an; eta datorren asterako jarri du bigarren zita, Jai Batzordeak. Asteazkenean izango da, martxoaren 20an, arratsaldeko 18:30etan hasita. Aurrekoa bezala, Auzo Udaleko aretoan egingo dute. Auzotar guztiei irekia izango da. II

I GOIZUETA ESKU PILOTA

Atsedan asteburua, pilotariak

Xanet Apezetxeak bakarrik jokatu du goizuetarren artean, bihar goizean Tafallan.

ASTEBURU lasaia dute esku pilotari goizuetarrek, eta atsedan hartuko dute gehienek. Are gehiago, Xanet Apezetxea alebina bakarrik jokatu du.

Bihar ariko da Apezetxea, Tafallan, Oberena taldeko Zulaikarekin bikotea osatuz. Goizeko 10:00etan hasita, aurreneko partidua izango da beraiena, Tafallako torneooko aurreneko kanporaketakoa.

Datorren asteburuan, aldiz, Nafar Jokoen hirugarren fasea hasiko dute goizuetarrek, eta bost bikote ariko dira: benjaminetan, Mikel Zurutuza eta Alize Sagardui, Josu Alsua eta Mattin Garmendia, eta Adur Sagardui eta Axel Salaberria; alebinetan, Anartz Lujanbio eta Xanet Apezetxea; eta infantiletan, Oihan Legarreta eta Egoitz Elizegi. II



Oroigarria eman zieten suhiltzaile boluntarioei, haien lana eskertzeko.

■ EREÑOTZU ANTZERKIA

‘Artantxuriketan’ emanaldia auzo etxean, ostiralean

Arratsaldeko 19:00etan izango da saioa, Aranoko Ansa ahizpen eta Maria Jesus Zugarramurdi amaren eskutik.

EREÑOTZUN ere egingo du geldialdia, *Artantxuriketan* emanaldi bereziak, lau emakume aranoarren eskutik: Arantxa, Ainhua eta Maider Ansa ahizpak, eta haien ama, Maria Jesus Zugarramurdi.

Datorren ostiralean izango da saioa, martxoaren 22an, Olak Auzo Elkarteak antolatuta. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da, Ereñotzuko auzo etxean; eta antzeztuko dute arto zuriketan ari direla lau ema-

Atsolorrerako giroa berotu nahi du Olak Auzo Elkarteak, emanaldi honekin.

kumeak, baserriko sukaldean, arratsalde batean. Familia eta auzokoak elkartuta, solasaldi bizia sortzen dute, artoa zuritzen duten bitartean, kantuz eta kontakizunez betetakoa.

Atsolorra, apirilaren 7an

Emanaldiaz gozatzeko aukera eskaini nahi izan die Olak Auzo Elkarteak, ereñotzuarrei. Baina bide batez, giroa berotu nahi izan du auzoan, Atsolorrari begira. Zehazki, apirilaren 7an izango da, hiru aste barru, igandearekin.

Auzo Elkartetik nabarmendu dute, bi ekitaldiek azaleratzen dutela «emakumeak izan duen pisua, euskal kulturaren transmisioan». ■

■ ARANO UDALA

Udal Aurrekontua eta plantilla organikoa, jendaurrean ikusgai

Urtarrilaren 31ko Plenoan onartu zituzten; apirilaren 1era arte, erreklamazio epea.

JOAN den astelehenean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2019rako Udal Aurrekontua eta plantilla organikoa onartu dituela Aranoko Udalak; eta egun horretatik hasita, 15 egun balioduneko epea dago, erreklamazioak edo alegazioak aurkezteko, udaletxean; apirilaren 1era arte, alegia.

Jendaurrean ikusgai daude, udaletxean bertan, herritarren

eta interesatuen eskura. Epea igarota erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartuta geratuko dira biak.

Urtarrilaren 31n egin zuen ohiko Plenoa Aranoko Udalak, eta bertan onartu zituen Udal Aurrekontua, plantilla organikoa eta langilegoaren zerrenda, eta baita alkateak izanzen duen ordainsaria eta dedikazioa ere, 2019 urtean. ■

■ MARTXOAK 8

Mahaiaren bueltan ere bazen zer ospatua, Emakumeen Egunean

Bazkaria egin zuten Epeleko emakumeek, eta afaria Arano eta Goizuetakoek.

KALEAN bakarrik ez, mahaiaren bueltan ere elkartu ziren bailarako emakumeak, Martxoaren 8an; Emakumeen Egunean. Bazelako zer ospatua!

Epeleko emakumeak Iturralde jatetxean elkartu ziren, urtero bezala, giro ederrean bazkaltzeko. Eta azaldu dute, «Epe-

leko emakume guzti-guztiak» elkartu zirela.

Aranoarrek, berriz, elkartean egin zuten afaria, Maisue-nean mikromatxismoei buruzko solasaldia egin ondoren. Eta goizuetarrak ere afaltzeko bildu ziren, Oxeguardan, Plazan elkarretaratzea egin ondoren. ■



Mikromatxismoei buruzko solasaldiaren ondoren, elkartean afaldu zuten elkarrekin, emakume aranoarrek.



Iturralde jatetxean egin zuten bazkaria, Epeleko emakume guzti-guztiek.



Oxeguardan elkartu ziren emakume goizuetarrak, afaltzeko. Argazkiak: Felix Loiarte

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea **Lan-taldea:** A. Arbelaitz, I. Goñi, L. Goñi, B. Los Arcos, A. Moreno, J. Osa, M. Ramirez de Alda, L. Rekondo eta J. Zubitur. **Egoitza:** Larramendi 11 (Hernani) ☎ 943 33 08 99 - 688 660 714.
Eposta: kronika@kronika.eus, astigarraga@kronika.eus, urumea@kronika.eus eta publi@kronika.eus. **Lege gordailua:** SS-1469-2018. **ISSN:** 2659-5036

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga)
DYA: 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037
ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
 ☙ Egunez: **Odrizola** URNIETA Idiazabal, 18 **943 334014** Gaeuz: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022**

EGURALDIA
GAUR Hegoaldeko haizea sartuko da, eta gora egingo du tenperaturak, nabarmen, nahiz eta giro frexkoarekin hasi eguna. Zeruia ia erabat garbi egongo da, egun osoan zehar. **Min.6° / Max.21°**
BIHAR Erabat aldatuko da eguraldia, biharko. Fronte hotz bat sartuko da goizean, eta okerrera egingo du. Tenperaturak beherakada handia izango du, eta euria ere egin dezake. **Min.8° / Max.11°** (euskaime)



■ DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Txotxaren ondorengo postrea, edozeri koplak jartzea!

Azken txanpan sartu da 'Bota Bertsoa! lehiaketa, sagardotegietan. Martxoaren 25era arte dute epea, kupel arteko bertsolariek.

MAKINA bat bertso eder izango dira dagoeneko, sagardotegietako kaxetan jasota. Umoretsuak gehienak, ziurrenik, sagardotegiko giroak lagunduta. Eta horietako batzuek, saria izango dute apirilean, Bota Bertsoa! lehiaketako irabazleak aditzera ematen dituztenean, Dobera Euskara Elkartea eta Iraulio Pantalone Bertso Kabiak.

Baina oraindik ere, bertso-tarako tartea zabalik daukate, kupel arteko bertsolariek! Martxoaren 25era arte dago epea, Bota Bertsoa! lehiaketan parte hartzeko, Astigarraga eta Hernaniko makina bat sagardotegitan: Akarregi, Alberro, Altxeta, Elutxeta, Goiko Lastola, Gurutzeta, Iparragirre, Ipintza, Itxas-Buru, Larre Gain, Lizeaga, Oialume Zar, Oiarbide, Olaizola, Otsua-Enea, Petritegi, Rezola, Roxario, Rufino, Zapiain eta Zelaia.

Horietan guztietan dago kaxa

Lehiaketan parte hartzeko, Hernani eta Astigarragako 21 sagardotegitan daude kaxak.

bana, bertsoa botatzera animatzen direnek, bertan uzteko.

Zer izango ote da aurten, iaz baino hobea?

Parte hartzeko, sagardotegiko bezeroek nahikoa dute kaxaren ondoan dagoen paper bat hartu, eta bururatzen zaien bertsorik onena idaztea. Baina bertsoaren gaia, aurrez zehaztu dute bertso eskolakoek: **Aurten? Iaz baino hobea.** Zer izango ote den, aurten hobea den hori, norberak erabakiko du!

Nahi den doinu eta neurrian idatzi daitezke bertsoak,

eta izen-abizenak eta telefono zenbakia jarrita, kaxan sartu behar dira. Bertsoa hobeto pentsatu nahi duenak, hala ere, emailaz ere bidali dezake gero, dobera@dobera.eus helbidera.

Sarien artean, otorduak, sagardoa, ipuinak...

Bertso onenak bakarrik ez, beselakoek ere jasoko dute saria, urtero bezala. Aurreko edizioetan, bertso bereziena, originalea, arraroena, letra onena zeukana, umoretsuena... ere saritu izan dute, Iraulio Pantaloneko epaimahaikideek. Horrelako sari bitxirik ez da faltako edizio honetan ere... eta bertso bitxirik ere ez!

Horrela, makina bat sari banatuko dituzte, sagardotegiek eta Doberak jarritakoak: bi lagunentzako otorduak, kaxa sagardoak, Doberaren ipuin eta liburuak...



Biterin elkartuko dira apirilean, saritutako bertsoak kantatzeko.

Bertso emanaldia eta sari banaketa, apirilaren 9an

Parte hartzeko epea martxoaren 25ean bukatuta, 15 eguneko epea izango dute epaimahaikideek, deliberatzeko zein izango diren sarituak. Eta apirilaren

9an, ekitaldia izango da Biterin: saritutako bertsoak kantatuko dituzte, irabazleek; eta bertan jasoko dute, merezitako saria.

Aurreko urteotan bezala, ekitaldi horretan ere ez da umorerik faltako! ||

IRAGARKI MERKEAK

Adineko gizonezkoa zaintzeko euskeraz dakien emakumea behar dugu, goizez 3-4 orduz. **Deitu:** 608 870 402

6 hilabeterako pisua elkarbanatu edo alkilatuko nuke merke Hernanin edo inguruan. **Deitu:** 699 450 815

Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizenziak indarrean ditu eta makineria guztia prest. Bezero kartera handia eta errentagarritasun frogagarria. **Deitu:** 656 709 251

Langile bat behar da SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZAILEA, ahal bada esperientziarekin. **Interesatuak deitu:** 943 690 643

Hernaniko lzpizua kalean martxan dagoen Txema taberna alokatzen da. **Deitu:** 605 72 91 57

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu:** 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

CANEXION
 Maskotentzako kalitatezko denda eta aholkularitza
Otsaila eta martxoa kumeen hilabeteak
 Akarregi poligonoa, 10. Hernani
943 04 87 83

IRUBIDE JATETXEA
 Zure jaletxea. Epelen
Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

Pelotadenda
 www.pelotadenda.com
 Orduetgia: 9.30-13 // 16.30-20
 Karobieta 1 (Atsegindeg) Tlf: 943 555852
 ASTORE, AOKIAS, SKECHERS, MIZUNO, DESIGUAL, COLUMBIA, NEW BALANCE, ASICS
Zurekin ospatu nahi dugu!
8. URTEURRENA
 MARTXOAREN 15ETIK 31RA
 Gure **ESKANTZAZ** gure...
 80€ baino gehiagoko erosketatan
DESKONTU BONOIA 10*€
 OPARI zure hurrengo erosketarako
 *Hernaniko denda eta online erosketatan.